



## EPE 2025. LEHIAKETA-OPOSIZIOA. BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

### Informazio-oharra, Laneko Prestakuntza eta Orientabidea espezialitateko programazio didaktikoari buruzkoa:

EAEko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduretarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduak (EHAA 2025/03/06), oinarrien artean (6.1.2.) xedatzen du "programazio didaktikoak Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden curriculumei buruzkoa" izan behar duela eta bertan "arauak ezartzen dituen curriculum-elementu eta -osagai guztiak jaso behar direla".

Era berean, Lanbide Heziketaren eremu zehatzerako, betiere "titulu eta heziketa-ziklo bakoitzari aplikatu beharreko curriculum-dekretuetan ezarritakoaren arabera", zehazki zehazten da programazio didaktikoak "konpetentzia profesionalak, lanbide-moduluak, konpetentzia-unitateak, ebaluazio-irizpideak, lorpen-adierazleak edo ikaskuntzaren emaitzak" izan beharko dituela, dagokionaren arabera.

Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak (BOE 2023/07/22) eta Lanbide Heziketako tituluak ezarri eta gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituzten errege-dekretu jakin batzuk aldatzen dituzten maiatzaren 21eko 499/2024 eta 498/2024 Errege Dekretuek (BOE 2024/05/28), Laneko Prestakuntza eta Orientabidea modulua kentzen dute eta Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala ezartzen dute. Azken dekretu horien arabera, "hezkuntza-administrazioek dagozkien curriculumak ezarriko dituzte, errege-dekretu honetan ezarritakoa errespetatuz eta 659/2023 Errege Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera".

Gaur egun, ordea, aurreikuspen hori ez da oraindik modu ofizialean garatu, eta aipaturiko aldaketa Oinarrizko Curriculum-Diseinuaren Eguneratze Zirriborroan txertatu da soilik. Zirriborro hori kontsultarako dago eskuragarri, baita oraindik indarrean dagoen Oinarrizko Curriculum Diseinua eta titulu bakoitzari buruzko dekretu eta errege-dekretuak ere, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuaren <https://ivac-eei.eus/es/familiak-profesionalak/> (IVAC-EEI) estekaren bidez. Esteka hori Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren webguneko Lanbide Heziketako atalean dago.



Horren guztiaren ondorioz, oraindik amaitu gabe dagoen arau-trantsizioko egungo egoeran, Laneko Prestakuntza eta Orientabidea irakaskuntza-espezialitaterako ere onargarriak izango dira Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala moduluaren programazio didaktikoak, betiere honako baldintza hauetara zorrotz egokitzen badira:

- Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala I moduluari erreferentzia eginez bakarrik egin ahal izango da; izan ere, programazio didaktikoak aurkezteko epea amaitu ordurako, ikastetxeetan oraindik ez da ezarri Enplegarritasunerako Ibilbide Pertsonala II modulua.
- Deialdi-aginduak berak berariaz eskatutako programazio didaktikoaren curriculum-elementu guztiak (heziketa-zikloaren helburu orokorrak, gaitasun orokorra, gaitasun profesionalak, pertsonalak eta sozialak, tituluan jasotako KPKN-ren kualifikazioen eta konpetentzia-unitateen zerrenda, zeharkako konpetentziak, lanbide-ingurunea eta zeharkako konpetentziei lotutako ikaskuntzaren emaitzak, eta ebaluazio-irizpideak) dagokien ziklo edo titulurako gaur egun indarrean dauden curriculumei lotuta egon beharko dira nahitaez, EHAA-n argitaratutako dekretuetan agertzen diren bezala.
- Ikaskuntzaren emaitzei eta ebaluazio-irizpideei buruzko atalean soilik aipatu beharko dira uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan berariaz ezarritakoak.
- Aipaturiko OCD-ren eguneratze-zirriborro horiek momentuz legezko baliorik ez dutenez, ezingo dira erreferentziazko araudi gisa erabili, baina bai informazio-eta kontsulta-material gisa (esaterako, modulu berri honen edukien multzoak definitzeko).

Edo, edonola ere, onargarriak izaten jarraituko dute Laneko Prestakuntza eta Orientabidea lanbide-moduluaren programazio didaktikoek; kasu horretan, curriculum-elementu guztiak oraindik indarrean dauden curriculumetan xedatutakoa bete beharko dute.

Gasteizen, 2025eko martxoaren 19an